## HERRILAN ETA GARRAIO SAILA

**8056**

**950/2010 FORU AGINDUA, azaroaren 26koa. Honen bidez, onartu egiten da Arabako Bizikletaren Kontseiluaren osaera, antolamendua eta funtzionamendua.**

Arabako Biltzar Nagusiek, martxoaren 8ko osoko bilkuran, Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen 4/2010 Foru Araua onartu zuten, bizikletaren erabilera sustatzeko Arabako Lurralde Historikoan, eta hirigune nagusiak lotuko dituen bizikleta bideen sarea egiteko oinarriak ezarri zituzten, pertsonen garraiorako eta aisialdiko eta turismo jardueretarako erantzun eta alternatiba izan behar den sare horren plangintza, eraikuntza, artapena eta zaintza bermatzeko; gainera, oraingo sareak beste lurralde batzuetakoekin, ingurukoekin zein atzerrikoekin, lotu ahal izango dira.

Foru arau horren laugarren tituluan (“Arabako Lurralde Historikoko bizikleta bideen erabilera sustatzea”), bizikletaren eta Arabako bizikleta bideen erabilera sustatzeko elementu batzuk finkatu dira. Bizikleta bideetan –erregistratutako marka: “Arabako Bizikleta Bideak”– kontuan eduki beharreko irizpideak homologatzeko mekanismoa ezarri da, bai eta lurraldeko motorrik gabeko joan-etorriak ikuspegi sistematikoarekin eta hainbat irizpide aplikatuta aintzat izango dituen estrategia ere bai. Bukatzeko, funtsezkoa dela irizten zaio gainerako eragile publiko eta pribatuen parte hartzea sustatzeari, gaiaren inguruko edozein politika benetan eta modu eraginkorrean landu eta garatzeko, eta, horregatik, aholku organo finko bat sortu da, Arabako Bizikletaren Kontseilua izenekoa, eta eskumena eman zaio bizikleta bideetan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko organoari, kontseilu horren funtzioak, antolamendua eta barne funtzionamendua zehazteko.

Horiek horrela, Herrilan eta Garraio Saila da bizikleta bideen arloan eskumena duena, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Aginduak 40.11 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arabako Bizikletaren Kontseilua eratzea du xede foru agindu honek, bere osaera, antolamendua eta funtzionamendua araututa.

Horregatik guztiagatik, Herrilan eta Garraio Saileko diputatua naizen aldetik, dagozkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa,

XEDATU DUT

Lehenengoa. Arabako Bizikletaren Kontseiluaren osaera, antolamendua eta funtzioamendua onartzea, Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen martxoaren 8ko 4/2010 Foru Arauak 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Foru agindu honen eranskinak xedatutakoaren arabera arautuko da kontseilu hori.

Bigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

**ERANSKINA**

ARABAKO BIZIKLETAREN KONTSEILUAREN OSAERA, ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA

**1. artikulua. Arabako Bizikletaren Kontseilua:**

1. Arabako Bizikletaren Kontseilua kide anitzeko organoa da. Kontsultak, aholkuak, bateratzea eta parte hartzea bultzatzea dira bere eginkizunak, eta horren jasotzaile dira bizikletarekin eta Arabako Lurralde Historikoan motorrik gabeko mugikortasunarekin lotuta dauden administrazioak, erakundeak, gizarte eragileak eta ekonomiako eragileak.

2. Kontrakorik berariaz xedatzen ez bada, borondatezkoak eta behartze indarrik gabekoak izango dira Arabako Bizikletaren Kontseiluaren txostenak, eta hilabeteko epean, gehienez ere, eman beharko dira.

3. Arabako Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Sailera atxikita egongo da Bizikletaren Kontseilua, eta eman beharreko administrazio laguntza emango dio Kontseiluari, bere eginkizunak betetzeko.

## DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

**8056**

**ORDEN FORAL 950/2010 de 26 de noviembre, por la que se aprueba la composición, organización y funcionamiento del Consejo de la Bicicleta de Álava.**

Las Juntas Generales de Álava en Sesión Plenaria aprobaron la Norma Foral 4/2010, de 8 de marzo, de las Vías Ciclistas del Territorio Histórico de Álava, con objeto de impulsar el uso de la bicicleta en el Territorio Histórico de Álava, sentando las bases para el desarrollo de una red ciclista que conecte los principales núcleos urbanos, para garantizar de este modo la planificación, construcción, conservación y protección de una red que se concibe como respuesta y alternativa al transporte motorizado de personas y al desarrollo de actividades de ocio y turismo, al tiempo que se asegura la conectividad con las redes existentes en otros territorios, tanto limítrofes como supranacionales.

En el Título Cuarto de la citada Norma Foral (“Promoción del uso de las vías ciclistas del Territorio Histórico de Álava”), se articulan una serie de elementos destinados a la difusión y promoción del uso de la bicicleta y las vías ciclistas de Álava. Se establece un mecanismo destinado a la homologación de los criterios que han de observar las vías –la marca registrada “Vías Ciclistas de Álava”-, además de una estrategia que abarca bajo una óptica sistemática y multicriterio, la movilidad no motorizada dentro del territorio. Finalmente, se considera que fomentar la participación del resto de agentes públicos y privados deviene crucial a la hora de elaborar y desarrollar de forma efectiva y eficaz cualquier política relativa a la cuestión y por ello, en el artículo 68 de la Norma Foral 4/2010 se crea un órgano estable de participación de carácter asesor, denominado el Consejo de la Bicicleta de Álava, atribuyendo al órgano de la Diputación Foral de Álava competente en materia de vías ciclistas, la facultad de determinar las funciones, organización y funcionamiento interno de dicho Consejo.

Por ello, siendo el Departamento de Obras Públicas y Transportes el competente en materia de vías ciclistas, y conforme a lo dispuesto en el art. 40.11 de la Norma Foral 52/1992, de 18 diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, la presente Orden Foral tiene por objeto desarrollar el Consejo de la Bicicleta de Álava regulando su composición, organización y funcionamiento interno.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen como Diputado de Obras Públicas y Transportes.

DISPONGO

Primero. Aprobar, conforme a lo dispuesto en el art. 68 de la Norma Foral 4/2010, de 8 de marzo, de las Vías Ciclistas del Territorio Histórico de Álava, la composición, organización y funcionamiento del Consejo de la Bicicleta de Álava, que se regirá por lo dispuesto en el anexo de la presente Orden Foral.

Segundo. La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOTHA.

**ANEXO**

COMPOSICIÓN, ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO DE LA BICICLETA DE ÁLAVA

**Artículo 1º. Consejo de la Bicicleta de Álava:**

1. El Consejo de la Bicicleta de Álava es un órgano colegiado de carácter consultivo, asesor, de concertación y participación de aquellas administraciones, instituciones y agentes sociales y económicos vinculados a la bicicleta y a la movilidad no motorizada en el Territorio Histórico de Álava.

2. Salvo disposición expresa en contrario, los informes del Consejo de la Bicicleta de Álava serán facultativos y no vinculantes, y deberán emitirse en el plazo máximo de 1 mes.

3. El Consejo de la Bicicleta quedará adscrito al Departamento de Obras Públicas y Transportes de la Diputación Foral de Álava, que le prestará al Consejo el apoyo administrativo que necesite para el ejercicio de sus funciones.

**2. artikulua. Funtzioak:**

1. Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen martxoaren 8ko 4/2010 Foru Arauak, bere garapen arauek eta, hala badagokio, horiek ordeztuko dituzten arauek xedatutako funtzioak beteko ditu Arabako Bizikletaren Kontseiluak.

2. Txostenak egin beharko ditu, nahitaez eta behartze indarrik gabe, Arabako bizikletaren estrategiaren eta sektore honen inguruan egin daitezkeen planen gainean.

3. Bizikletari lotutako administrazio, erakunde, gizarte eta ekonomia eragileek edo Arabako Foru Aldundiko edozein sailek kontsultatutako gai guztiei buruzko txostenak egin beharko ditu.

4. Beharrezkotzat jotzen duenean, Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen Foru Arauak ezarritako helburuak hobeto lortzeko egoki iritzitako jardunei buruzko txostenak, iradokizunak eta proposamenak egingo ditu.

**3. artikulua. Osaera:**

1. Hauexek osatzen dute Arabako Bizikletaren Kontseilua:

a) Kontseiluaren lehendakari jardungo den Herrilan eta Garraio Saileko diputatua.

b) Herrilan eta Garraio Saileko hiru ordezkari.

c) Ingurumen Saileko ordezkari bat.

d) Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko ordezkari bat.

e) Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzako ordezkari bat.

f) Gasteizko Udaleko ordezkari bat.

g) Euskadiko Udalen Elkarteko ordezkari bat.

h) Txirrindularitzako Arabako Federazioko ordezkari bat.

i) Arabako txirrindularitza elkarteetatik ordezkaritza nabarmena duen elkarteren bateko ordezkari bat.

2. Herrilan eta Garraio Saileko ordezkarietatik bat jardungo da idazkari, eta hitza eta botoa izango ditu.

**4. artikulua. Funtzionamendua:**

1. Araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen legeak xedatutakoaren arabera arautuko da Arabako Bizikletaren Kontseilua, administrazio arteko kide anitzeko organoen kasuan, baldin eta bertan gizartearen interesen ordezkari diren antolakundeek parte hartzen badute.

2. Kontseiluak bere funtzionamendu arauak ezarri edo arautu ahal izango ditu, bere arautegi organikoa onartuta. Arautegi organikoa onartu edo aldatzeko, bere kideen gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da. Edonola ere:

a) Erabakiak hartzerakoan berdinketarik bada, lehendakariak bere botoaz erabakiko du.

b) Herrilan eta Garraio Saileko diputatuak eskuordetzan eman ahal izango du Arabako Bizikletaren Kontseiluaren lehendakaritza.

3. Arautegi organikoak xedatzen duenari lotuko zaie deialdien erregimena eta Kontseilua balio osoz eratzeko beharrezko quoruma. Ez badago berariazko xedapenik, lehendakariaren erabaki bidez, nork bere ekimenez edo 3 kidek hala eskatuta egingo dira deialdiak, eta kideen erdia, gutxienez, egon beharko da Kontseilua balio osoz eratzeko, eta nahitaez egon beharko dira lehendakaria eta idazkaria, edo hala badagokio, beren ordezkoak.

4. Baliabide elektronikoak erabilita bildu ahalko da Kontseilua, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen lehenengo xedapen gehigarriak, edo hala badagokio, lege hori ordezten duten arauek xedatutakoarekin bat etorriz.

Gasteiz, 2010eko azaroaren 26a.– Herrilan eta Garraio Saileko diputatua, LUIS ALBERTO ZARRABEITIA VILLANUEVA.– Herrilan eta Garraio Saileko zuzendaria, EMILIO DE FRANCISCO UGARTONDO.

**Artículo 2º. Funciones:**

1. El Consejo de la Bicicleta de Álava desarrollará las funciones previstas en la Norma Foral 4/2010, de 8 de marzo, de las Vías Ciclistas del Territorio Histórico de Álava, en su normativa de desarrollo, y en la normativa, que en su caso, las sustituya.

2. En todo caso, deberá informar con carácter preceptivo y no vinculante, sobre la Estrategia de la Bicicleta de Álava, así como los diferentes planes que puedan formularse sobre este sector.

3. Informará sobre todos los asuntos que sean sometidos a su consideración por cualquiera de las administraciones, instituciones, agentes sociales y económicos vinculados a la bicicleta, o por cualquier Departamento de la Diputación Foral de Álava.

4. Siempre que lo considere oportuno, emitirá los informes, sugerencias y propuestas de actuación que estime convenientes para la mejor consecución de los objetivos establecidos en la Norma Foral de Vías Ciclistas del Territorio Histórico de Álava.

**Artículo 3º. Composición:**

1. Integran el Consejo de la Bicicleta de Álava:

a) El Diputado o Diputada titular del Departamento de Obras Públicas y Transportes, que lo presidirá.

b) Tres representantes del Departamento de Obras Públicas y Transportes.

c) Un representante del Departamento de Medio Ambiente.

d) Un representante del Departamento de Administración Local y Equilibrio Territorial.

e) Un representante de la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco.

f) Un representante del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

g) Un representante de Euskaleko Udalen Elkartea-Asociación de Municipios Vasco.

h) Un representante de la Federación Alavesa de Ciclismo.

i) Un representante de una asociación con representatividad reconocida entre las asociaciones ciclistas de Álava.

2. Actuará como Secretario uno de los representantes del Departamento de Obras Públicas y Transportes, que tendrá voz y voto.

**Artículo 4º. Funcionamiento:**

1. El Consejo de la Bicicleta de Álava se regirá por lo previsto en la legislación de régimen jurídico y procedimiento administrativo común, para los órganos colegiados interadministrativos en los que participen organizaciones representativas de intereses sociales.

2. El Consejo podrá establecer o complementar sus propias normas de funcionamiento mediante la aprobación de su reglamento orgánico. La aprobación o modificación de su reglamento orgánico requerirá el voto favorable de la mayoría absoluta de sus miembros. En todo caso:

a) El Presidente dirimirá con su voto los empates a los efectos de adopción de acuerdos.

b) El Diputado o Diputada titular del Departamento de Obras Públicas y Transportes, podrá delegar la presidencia del Consejo de la Bicicleta de Álava.

3. El régimen de convocatorias y el quórum necesario para la válida constitución del Consejo, se ajustará a lo que disponga su reglamento orgánico. En defecto de previsión expresa, las convocatorias se efectuarán por acuerdo de su Presidente, por propia iniciativa o a petición de 3 vocales, y para la válida constitución del Consejo se requerirá la presencia de la mitad, al menos de sus miembros, siempre que entre ellos se encuentren el Presidente y el Secretario o en su caso, de quienes les sustituyan.

4. El Consejo podrá reunirse por medios electrónicos, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Adicional Primera de la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos, o normativa que en su caso, la sustituya.

Vitoria-Gasteiz, 26 de noviembre de 2010.– El Diputado Foral de Obras Públicas y Transportes, LUIS ALBERTO ZARRABEITIA VILLANUEVA.– Director de Obras Públicas y Transportes, EMILIO DE FRANCISCO UGARTONDO.